

HAUSTURAK 2011

JAIZKIBEL

Berezko haustura, haustura naturala, Jaizkibel. Beste behin ez dugu erraz ahaztuko biziutakoa. Bizipenen konkrezioan galdu beharrea, oroitzapen orokorrari begiratzen badiogu, alaitasuna transmititzen duen bizipena eraman dugu denok etxera, norberak berera. Konkreziora jotzen badugu, pentsa, edozein elkarbizitzak eman ditzakeen gora behera guztiak aipa genitzake. Hori da Hausturak. Hori da metodologia, ingurune eta jendarte ezezagunean bizitzen eta elkarbizitzen ikastea. Gu, hezitzaileok, bizitzeko eta elkarbizitzarako oinarriak bilatzen laguntzeko gaude. Besterik ez dago.

Egonaldi honek duen eraginkortasunaz sinistuta nago. Natura, basatasuna, isolamendua biltzen ditu eta hauen baitan eta harremanean elkartzen gara gu. Oinarritik abiatzen gara. Lortzen dugun deskonexioa izugarria da. Bizkarrera uzten dugunarengandik deskonektatu eta aurrean daukagunarekin konektatu, benetan. “Reset” on batek, blokeoa konpondu lezake. Desblokeatzen jarrai dezagun...

Luze baino motz. Agian egunen batean egonaldi hauek konkrezio handiz deskribatzera animatu ninteke baina oraingoz ez da nire jokamoldea. Bizipen zehatzak nire oroitzapenetan gordetzen ditut, hortxe baitaude hobekien. Beretzako nahi dituenak, motxila hartuta etorri dadila Jaizkibel aldera, bereak bilatzera.

Iraganetik etorkizunera, hau da berezko, jatorrizko, betiko Hausturak.

Imanol Ikardo Enparan